



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Francisco Michelena Celayeta.  
Leire Bazterrika Loiarte.

2018ko maiatzaren 22an, 8:00etan, Zubietako Herriko Etxean elkartzen dira ohiz kanpoko biltzarrean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel Jose Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hau aztertu da:

## **1. HERRIKO OSTATUA.**

Zubietako Udalak, 2018ko martxoaren 5eko Osoko Bilkuran, erabaki zuen deia egitea *Herriko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendua emateko leihaketa irekira. Ez zen eskaintzarik aurkeztu jarritako epean —apirilaren 12an bukatu zen—.

A.G.LI.ek eta N.D.M.k jakinarazi zuten maiatzaren 15ean errentamendua hartzeko asmoa zutela. Maiatzaren 17an aurkeztu zituzten baldintza pleguak eskatzen dituen agiriak (3 kartazalak).

*Herriko Ostatuko* errentamendua emateko 2 saiakera egin eta hutsik gelditu zirela ikusirik, aurkeztutako proposamena aztertzea erabakitzen da, epez kanpo aurkeztua izan arren, ez baitio horrek inori kalterik egingo.

Jarraian, aurkeztutako proposamena ireki du idazkariak: 1. kartazaleko agiriak ongi daudela ikusirik, 2. kartazala (ustiapen proiektua) eta hirugarrena (eskaintza ekonomikoa) ireki eta baloratu egin dira. Pleguko gutxieneko baldintzak betetzen direla kontuan izanda, eta proposamen bakarra izanik, eskaintza onestea erabakitzen da, puntu zehatzik eman gabe.

Horrenbestez, aho batez erabakitzen da:

1. *Herriko Ostatuan* taberna, hostel eta jatetxe zerbitzuaren errentamendu kontratua esleitzea A.G.LI. eta N.D.M.ri, euro 1ean urteko (gehi BEZa) eta 2 urtetarako.

2. Baldintza pleguko 8. eta 9. baldintzak bete beharko dituzte adjudikatariek epe-barru (behin betiko fidantza ezarri, kontratua gauzatu eta horretarako behar diren agiriak aurkeztu).

3. Kontratua sinatzeko ahalmena ematea alkateari.

Eta bertzerik ezean, 08:15a denean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.